

22V  
3250

DEVOCIOZCO EJERCICIOA  
Iñautetako iru egunetan  
JESUSI EMATEN ZAYOZCAN  
NAIGABEAC ARINTZECO.



ES PROPIEDAD.

Obispo jaunaren baimenarequin.

TOLOSAN  
FRANCISCO MUGUERZA-REN MOLDIZTEGUIAN  
1890 garren urtean.

N-67356  
F-71283

ATV  
DEVOCIOZCO EJERCICIOA 29480

## IÑAUTEETACÓ IRU EGUNETAN

JESUSI EMATEN ZAVOZCAN NAIGABEAC ARINTZECO.

*Gurutze santuaren, etc.....*

Zeruetaco Jaun, Sacramentu Santuán zaudena! Ona emen non natorren zure oñetara, nere biyotzian pecatuen damua, eta zuganaco amorioa da-caizquidala. Ecisten det, nere anayetaco asco eta ascoc, gaurco egunian, ezagutu nai etzaituztela, eta atsecabez betetzen zaituztela. Beragatic natorquizu, esqueintzera nere biyotza eta naizan guziya, nolabait-ere ariñtzeco, aldedana eguiñaz, artzen dituzun atsecabeac; eta dembora berean escatzen dizquitzut nere anay oyen animentzat arguiya, erruquiya eta barcacioa. Lagun zadazu zuc, ¡oh Maria, nere eta pecatari gucien ama maitea! erregu auec, nic mereci ezpadet ere, ontzat artuac izan ditecen Jaungoicoaren tronuaren aurrean. San José Gloriosua, nere eta erri onetaco Patroi eta abogadu santuac; Tabernaculuaren bardadea inguratzen, ordu onetan millaca zaudenten ainguero santuac; zuec batez ere, nere, eta erregu auetan parte izatea nai dedanen Ainguero Guardacoac, bitarteko jarri zaitezte, eta escatu ezazute, beragatic eta nigatic, izan dediñ Jaungoicoaren gloriaric audieneraco, nere eta pecatari gassoen oneraco, orain eguitera noana, Jesus maitearen atsecabeac ariñtzeco.

# LENENGO EGUNA.

---

## MEDITACIOA.

**Egun auetan eguiten diran pecatuen  
anditasunaren gañian.**

### I.

Beguirea ezazu contuz anima nerea, ez ote daucazun arrazoic asco, eta gueyegui ere, esqueintzeco Jaungoicozco zure esposo Jesusi, eguiñ aldezaquezun gucia, ariñtzeco iñauteteetako egun deabruzco auetan artzen dituan atsecabeac. Badiruri, Satanas, egun auetan, eguiñ dala berriro munduaren jabe, bada asco dira, bata-bestiaren leyan, bere serbitzari becela azaltzen diranac. Esan bazuan ere gure Salbatzalle Jesusec: *Nunc princeps hujus mundi ejicietur foras. Orain mundu onetako nagusia (au da Deabrua) campora botea izango da.* Eguiyaz diruriyena da, egun auetako cristau ascorren ibillerac guezurtatzen dituztela Jesusen itzoyec. Evangelio santuaren lecuan diruri jarri dala legue berri bat, mandamentu berriyac, eta adoracio berri bat. Eztá arquitzen ecer-ere, eguiñ eciñ ditequenic; edocer gauza eguiteco baimen edo licencia bereala arquitzen da; Jaungoicoac eta Eleizac utzi balute bezela alde batera egun auetan, daucaten nagusitasun eta aguimpidea leguearen eta conciencien gañian. Guerra eguiten zayo Religioari, bere misterioric santuen eta aundiyyenaz

farra eguiñaz: guerra aingueruzco virtute castidadiari, cale eta plaza genteric gueyen daudenetan. Jaungoicoaren semea etorrico balitz ibillera nazcagarri auec ecustera, galdetuco luque dudaric gabe, penaz beteric: «¡Cer! ¿Auec dirá Nic» nere odolarequiñ etsayaren mendetic atera ni» tuan semeac? . . . . . ¿auec nere graciaren bidez » deitu nituanac? . . . . . ¿auec nere batayoarequiñ » sillatu nituanac»? ¡Bay Jaungoico nerea; bay Jesus nerea; bay nere animaren esposoa! Auec dira. Baña ez Zuc jarri ciñucen becela, zure antza edo imagiña beracgan daucatela; baicic beren etsay Luzbelec ipiñi ditnan becela, bere ichura arturic, bere antzeco biurturic. Auec dira; baña ez dira oraiñ cristauac, baicic berriro gentill eguiñac, beracgatic Zu ill ez baciñan becela. ¡Oh Jesus nere ondasun gucia, eta ala ere ain despreciatua! ¡Oh Odol osticopian zapaldua! ¡Oh Gurutze santua, ain gorrotatua eta ez ezagutua! ¡Oh esquergabequeri izugarrizcoa!

## II.

Pensa ezazu ondo, anima nerea, nola, urtearen egun guciyetan eguiten badira ere pecatuac, egun auetan eguiten diranac, dirala, esan ditugun arrazoy edo motivoacgatic, andiagoac, ugariyagoac eta Jaungoicoaren ondra eciñ-gueyagoraño osticoperatzen dutenac. ¿Garizumaren azqueneco asteari deitzen diyogu Pasioco astea? Bay, ala deitzen diyogu. Baña ez aste ura, baicic oraingo au da eguiyaz Jesusentzat Pasioco astea. Arrazoy an-

diyareguin Eleiza Ama Santac jartzen du zaldun-  
 iñaute eguneco mezan araco evangelio, esaten  
 diguna: *Ecce ascendimus Jerosolymam*: ona non  
 goacen Jerusalenara: egun onetaraco ipiñiya di-  
 ruri. Bay, biurtzen guera Jerusalenara, bagoaz  
 berriz calvariora, berriztatzen diogu Jesusi, ju-  
 duac eman cioten eriotza; baña lenengoan baño bi-  
 yotzeco gogortasun audiyoarequin, bada oraiñ  
 ez dira juduac, baicic cristabac; Jesus illtzen du-  
 tenac. Bay: Jesusi, bere arpegua chistuz ciquint-  
 zen zayo, baita ere matrellecoz zauritu: Jesus  
 gurutzean josten da, eta an berari farra eta burla  
 eguiten zayo. Emendic aditzen ditudan deadar  
 eta zaratac, dira arrazoigabeco guizon, Jesusi ba-  
 ño Barrabas goiztoari jarraitza nayago dutenenac.  
 Or dabilta guiza talde engañatuac, Jesusi burla  
 eguiñaz, bere icen santua madaricatuaz, eta bere  
 biotza saminduaz. ¡Oh nere Jesus maitea! ¡Zu,  
 bacarric emen, lotsaturic bezala, aimbeste gaizta-  
 queri ecustian! ¡Zu, bacarric emen, adisquide le-  
 yal apur batzuequin, ceñac, eguiaz diran guchi,  
 bay guciz guchi, comparatzeco beste or dabilzan  
 conta eciñal oyequiñ, zu gorrotatuaz, edo gu-  
 chienaz benepeiñ, zuzaz, ezpaciña baño gueyago,  
 oroitu gabe. ¡Ah! poztu zaite nere Jusus guciz  
 maitea, nic eguiten dizquitzudan obsequioaquin,  
 berez ecer-ezac badira ere, eta barca ezazu. Iduqui  
 itzatzu aurrera ere zabalic zure escuac, artzeco  
 zugana biotz amoroosoarequin, aimbeste esquer  
 gaiztoco, baldin gueroago zugana biurtzen badira.  
 Esqueiñzen dizut nere biotza; esca zadazu nai  
 dezun gauza, danic eta gaitzena ere, bada pozic

eguiñgo det, zuri egun auetan quentzen dizuten hondra, atzera biyurtzeagatic. ¡Ay esqueñi albanedi naizan gucia aldare orretan, zuri atsecabeac ariñdu, eta nere anai pecatari doacabeai graciac irichi, eguiteagatic!

*Emen bacoitza esqueñico zayo debocio aundiyequin Jesus sacramentatuaren biyotzari, egun auetan eguiten diran pecatuen penitencian, ontzat artuaz pecatu oyen ordañaz, Jaungoicoac bialdu deguiquion edocein gaitz eta naigabe.*

Emen errezatuco da Estacio nausiya, eta guero ondorengo

### **Esqueñi eta erreguac.**

¡Jesu-Cristo nere Jauna! Nere anai pecatari gassoacgatic, nator lasterca zure oñetara, escatzera berentzat zure gracia, biotzetic damutu, eta, semeac aitagana becela, zugana confianza aundiyequiñ biyurtu ditecen

### **Barca eguiyezu Jauna.**

Beguirea nola aimbeste pecatari doacabec, beren lasaitasun eta ibillera nascagarrirequiñ, beren anima gassoac ciquintzen dituzten; baña zure amaren jatorrizco graciagatic, eta ama izanta ere, virgiña zalaric, izan zuan garbitasun aingueruz-coagatic

### **Barca eguiyezu Jauna.**

¡Ah! or dabilta mundua eta deabrua adoratuaz, jantzi baliyo aundico eta gueyeguizcoequin; ba-

ña zure jayotzaco pobreza-gatic, eta lenengo ur-teetan eguiñ cenduan bicitza illunagatic

*Barca eguiyezu Jauna.*

Beguiracune lasaiyac eguiñaz eta eguiñ-eraci-yaz, eta beren izqueta loyequin garbitasuneco virtutea, eta cristauari dagoquion lotsa santua osticoperatuaz or dabilta; baña beguira Jauna, zure beguiyac etziotela beñere gauza charri beguiratu, eta zure mingañac, itz eguiñ zuan gucian, ejemplo ona eman zuala; zure beguiracune gozo eta atseguiñac-gatic bada, eta zure itzequiñ eman cinducen ejemplaoac-gatic

*Barca eguiyezu Jauna.*

Zugatic eguiñ bear luqueena, eguiten dute munduagatic eta araguiyagatic, berai jarraituaz osasuna galtzeraño, baña pecatarien billa eman ciñuzan pausoagatic, ayec salvatzeco artu ciñuzan nequeac-gatic, evangelio santua prediatzen igaro ciñuzan atsecabe eta egarriagatic

*Barca eguiyezu Jauna.*

Amorezeo sacramentu orretan, eta aldarean bertan, aimbeste-eta aimbeste, naigabez betetzen zaituzte egun auetan; baña au gucia cenequiyela eguiñ cenduan azqueneco afariyan sacramentu au. Orduan, bada, aguertu cenduan amoriyo aiñ aun-diyagatic

*Barca eguiyezu Jauna.*

Jetsemanico baratza santutic icusten cinducen arguiro egun auetaco gaitzaqueri neurri gabeac,

eta berac-gatic biyotza oso samiñdu citzaitzun; samiñtasun onegatic, bada, eta gaur aimbeste doacabec berristatzen dizuten, Judasen laztan guezurrezcoagatic

*Barca eguiyezu Jauna.*

Juduac berac baño ere gaiztoago dira Jauna, egun auetan zure pasioa berristatzen dizuten cristauc; baña eman cizuten matrellacoa-gatic, zure azote eta arantzazco coroagatic, eta Juduac eraman erazo cizuten gurutze lotsagarriagatic

*Barca eguiyezu Jauna.*

Iru aldiz ucatu ciñuzan Pedroc, nescame batec salatu zualaco: baña ¿cembat cristauc, cembat aldiz, eta nolaco naigabeac emanaz, etzaituzte ucatzen, biyotzeco gogortasun gueyagorequiñ, cristauren icenaz eta izateaz ernegaturic? ¿Eta ori, zure semeac izanic? Baña ala ere Apostolu beldurtiac eman cizun atsecabeagatic

*Barca eguiyezu Jauna.*

Eguia da Jauna, egun auetan dabiltzala, zure ezagüeraric ere gabe, zuzaz azturic; berac-gatic ecer sufritu ezpacendu bezala; berac-gatic ez ill eta ez piztu eguiñ ezpaciña becela; baña gurutzian esan ciñuzan zazpi itzac-gatic: an bertan eman cizuten ozpiñ eta beasunagatic; zure ama maiteac zuc icusten cenduala, issuri cituan negar-malcoac-gatic, zure agonía eta asqueneco asnasagatic

*Barca eguiyezu Jauna.*

## ORACIOA.

¡Oh Jesu-Cristo nere Jauna! Ezagutzen det nere anai gassoac, beren ichumen aundiyarequiñ, eta beren zorigaiztoan, zuri gloria modurembaten quentzen dizutela; baña artu itzatzu gaiztaqueri onen ordañaz nere esqueñi eta erreguac, bada bodaquit ciur, zure biotz erruquitsuac ontzat emango dituala. Erruquitu zaite Jesus nerea, zure seme oyezaz, bada zure odolaren costuz erosiyac dituzu; barca eguiyezu, egun baten gozoro laztan zaitzaten. Amen.

## BIGARREN EGUNA.

*Gurutze santuaren etc.....eta ;Zeruetaco  
Jaun.....lenengo egunian becela.*

### MEDITACIOA.

**Asco dirala, egui-eguiyaz, Iñautetaco  
egun auetan, galtzen diran animac.**

#### I.

¡Oh cristava! Ezpadira asco zure biyotza esnaatzeo, egun auetan, gueldi-une bat ere gabe, Jaungoicoari eguiten zayozcean deshondrac, esnaá zaitte beñepeñ icustian, asco eta asco dirala, zure anai betico galtzen diranac, egun auetaco gaiztaqueri gueyeguizcoacgatic. Icusico bacendu zure esquerescuyetan erortzen dirala millaca guizonac, cole-

ra edo beste edoceiñ gaitzec jo ditualaco, icaratu eta beldurtuco ciñaque eguiyaz; baña gueyago icaratu eta beldurtu bear cenduque, icustian, ceiñ asco diran, animaco gaitz edo pecatuac joric, gaurco egunian betico galtzera dijoacenac. Esango dezu menturaz, projimoa zure burua becela amatzen dezula; eta ¿etzaizquitzu buruko illeac beldur ta icaraz chututzen aimbeste anima galtzen icusita? Eta anima gasso oyetaco bat edo gueyago aldendu albaditzquetzu condenacioco bidetic, ¿ez dezu ecercho ere eguiñgo orretaraco? Bay cristava: zure escuan daucazu oyec condenacioco bidetic aldentzea ¿badaquizu nola? Erregutuaz berac-gatic Sacramentu santu aldarecoan dagoan Jesusi. Jaungoico gure Jaunac nai izan du, guerotaco bacoitza izatea, oracioaren bitartez, gueron anayen salvatzalle. Salva itzatzu bada zuc ere alditzquetzunac, iñauteteetaco egun zori-gaiztoco auetan. ¡Jesu-Cristo nere Jauna! Icusi itzatzu anima gasso oyec, zugandie aldenduric, eta pecatuarren illuntasunean, ceiñ gaizqui arquitzen dirán. Nere erreguac mereci ezpadute ere, bialdu eguiyezu zure arguiyaren pussea bat, icusi dezaten ceiñ arriscu andiyan arquitzen diran; baita ere bear duten laguntza arriscu orretatic irtetzeco. ¡Beguirá Jauna! zure etsay, deabrua, poztutzen dala eciñ gueyagoraño, egun auetan, animac galduaz, ateratzen duan irabaciyyarequin. Ez bedi izan alferricocoa zure odolaren valioa, aimbeste, beren zorigaitzean, pecatari diranentzaco, bada ayec-gatic ere, nigatic bezala issuri dezu zure odola.

## II.

Beguire ezazu contuz, anima nerea, nolaco sare egoquiyac, animac arrapatzeco botatzen dituzten ogun auetan, munduac, demonioac eta araguiyac; eta nolaco erraztasun negargarriarequin, anima auec, aetan erortzen uzten diran. Libertaderic lotsagarrienari ematen zayo umore onaren icena; griñā charrai lasaitasun guciya ematen bazaye, esaten da egun auec orretaraco dirala. Lujuria nazcagarriya, animac ondatu, gorputzac galdu, eta guciac desonratu eguiten dituana, da, egun auetan esaten danez, gaitz gabeko jolas bat, dembora pasatzeco. Badiruri Infernuac, bere cirquillu gucietatic, botatzen duala lurrera pecatuaren lurrun galgarriya, eta biyotz asco eta ascoc lurrun au irentsitzen dutela. ¡Ah! ¡cembatec, menturaz oraiñ artian Jaungoicoa servitzen vicitu ondoan, egun auetan eztute irentsico pecatuaren pozoi edo menenua, eguiñ eraziko diena vicitza negargarri bat, eta eriotza negargarriyagoa, beti-betico infernuratuco dituena? Bay, lenengo urteac, Jaungoicoa servitzen; zorigaiztoco egun auetan bera ofenditzen; eme idic aurreraco dembora gucia pecatuan, zaartzen dirala gaitzaqueri gucietan, eta iltzen dirala pecatariyaren eriotzarequin. ¡Ah cembatentzat izango diran egun autaco ibillera gaiztoac, beren condenacioaren asiera! ¡Oh nere Jaun eta Jaungoicoa! Zugana nator, escatzeria gracia eta misericordiya anima oyentzat, bada oraindic Zugana biyurtu ditezque eguiyazco damuaren bitartez. Erruquitu zaite beráaz, gogoraturic gazteac

dirala, munduko berri ez daquitela, beren griña charrac zoratzen dituztela, deabruac milla asmo gaitorequiñ inguratzen dituala, eta mundu guezurtiac bere esaera guezurrezcoac sinistu erazten disquiela. Eguiyezu Jauna, beguiracune erruquizco bat, salvacioco bidetic aldenduric dabiltzan oyei. Bialtzen badiyezu zure arguiyaren pussca bat, onequiñ menturaz biurtuco dirá zugana, eta izango dirá zure artaldeco ardiric leyalenac. Aditu eguiquidatzu berac-gatic eguiten dizguitzudan erreguac; artu ezazu beren oneraco nic eguiten (*edo eguingo*) dedan comunio santua. Esqueintzen dizquitzut ere berac-gatic nere osasuna, nere onra eta nere biciya, ayen pecatuen zorraren ordañaz: bada, asco ezpadira ere, oyequin anima bacar bat zugana biyurtu **albanezaque**, pozic guciac eman-go ditut. Amen.



## IRUGARREN EGUNA.

*Gurutze santuaren etc.....eta ;Zeruetaco  
Jann.....lenengo egunian bezela.*

### MEDITACIOA.

**Cemba**t estimatzen duān Jaungoico gure  
Jaunac, pecatariac quentzen dioten  
honra, guc atzera berari bi-  
yurtzia, eta pecatari oyec  
gatic erregutzia.

#### I.

Balequique guizonac, ceiñ gogo onaz beguiratz  
en dituan Jaungoico gure Jaunac beren eguiñalac,  
pecatariac ematen diozcaten nai-gabeac ariñtzeco,  
ascoz gueyago izango liraque eguiñquizun atseguiñ  
onetan, bere adisquideric leyalenac bezela, saya-  
tuco liraquenac. Gauza jaquiña da, ambat eta gue-  
yago estimatzen degula mesede bat, cemba et  
andi yagoa dan, eta cemba eta guchiagotan eguiñ  
oi dan. Orduan icusten da arguiro eguiazco adis-  
quidetasuna, eta ondo-nai biyotzeticacua, beñere  
baño obequi aguertzen dana. Contura zaite, bada,  
ceiñ gozoro icusico dituan Jesus onac, egun aue-  
tan berari lagun eguiten igaro dituzun orduac,  
mundutarrac pecatuetan, edo beñepeñ, buruba-  
queri, eta pecatuco arriscuetan dabiltzan bitartian.  
Iduritzen zait icusten nagoala, nola gure Jesus  
maitearen biyotza dijoan bere tabernaculu edo

bici-lecu ezcutucotic, urreratuaz beñere baño amoriyo gueyagorequiñ bere adisquide leyalengana, aditzen ematera bere poza, eta pagatzera bere caridadearen doai berriac-quiñ, aguertu diyoten borondatia, aiñ laster, juan zaizquiolaco, mundutarren pecatuac-gatic satisfacio eman eta bere biyotz samindua alaitzera. ¡Ah nola poztuco dituan ceruco esposo onec, anima auec beren estuasunetan, oraiñ lagun eguiñ diotelaco bere bacardadian! ¡Ah nola lagun eguingo dien beren tristura-aldiyetan adisquideric onen onec! Bay; Jaungoico gure Jaunarén biyotz amoriotsuac g:ciz go-goan daqui iduquitzen bere honran eguiten diran gauzaric chiquienac ere, eta bera da ere, iñor ez becelacoa, ugaritasun andiaquin pagatzen. ¡Anima nerea! Eguizu aleguiñ gucia Jesus maitearen adisquide leyala izatera, bada icusten dezu ceiñ ascoc esquerric gaiztoenaz erantzunaz ofenditzen duten, eta cembatec ere daucaten azturic, lurreco gauzai oso emanic bici diralaco. Gueitu ezazu zugan animen salvacioaren egarria, sutu zure devocioa, iracequi gueyago eta gueyago Jesusganaco amorioa; eta onela ordañduco dizquietzu zure salvatzalle adoragarriyari, munduac, demonioac eta araguiyac egun auetan ostutzen diozcaten adoracioac. Saya zaite onetan, beñere baño gueyago, gaur, azqueneco eguna dan ezquiero, eta ez dezu damu izango zure azqueneco orduan Jesus ofendituaren adisquide leyal beti bici izana.

## II.

Beguiraz nola dijoacen pecatari doacabeac,

ichuturic, eta zoraturic, Satanas, infernuco buruzayaren banderaren ondorian. Ez dezu bada guchiago irabacico, anima nerea, egun auetan, batez ere azqueneco onetan eguiñ dezun aleguiñaz oyec-gatic erregutzen. Jaungoico gure Jaunac gueyen estimatzen duana da, bere honra eta gloria, gauzaric estimagarrienac diran bezela; baña auen ondoren, bere deseoric biciyena da, guizonen salvaciona, bada ceruraco eguin cituan eta eyec-gatic bere odol gucia issurri zuan. Eta icusten du beragatic biyotzeco samintasunic aundiyanarequin, nola dijoacen lasterca infernuco bidetic, eta bere justicia zorrotzac betico surtara bota bear dituala. Deica dagoquigu bada, erreguca, deadarca, jarri gaitecen bitarteko oyen eta infernuaren artean, al-dendu ditzagun beren bide gaiztoetatic, eta biurtu erazo Jesusgana, damuturic, eta bere adisquide eguiñic. Eta orregatic nai du arquitu norbait pecatari oyec-gatic asco orregutuko duana, berac-gatic esqueiñico dana, berac-gatic satisfacio eman eta oyen pecatuac obra onacquiñ ordaiñduco dituana, era onetan Jaungoicoaren misericordiac arqui dezan bide erraz eta atseguiñ bat, barcatze-ko pecatariari, baña bere justicia beticoaren calte gabe. Ala, egon guindezque seguru, Jesusec gueyen estimatuco duan gauza, eta ondoren pagatuco duana, izango dala, cristau onac, Jaungoicoaganaco bitarteko jarriric, beren anai pecatariac-gatic eguintaco erreguac. Jesusec erosi gaitu bere odo-larequiñ. ¿Nai diogu lagun eguiñ erredentzioco lan onetan, berarequiñ batean erredentore eguiten guerala, erredentzioco frtuac gure anai pecata-

rien animetara eldu eracitzeco? Say-agaitean bada, eta irichico degu oracioarequiñ, pacienciarequiñ eta penitenciarequiñ. ¡Oh Redentore maite nerea, eta nere anai pecatariena! Nai nuque nic ere erredentore izatea, eta uste det irichico dedala mesede au, zure misericordia neurri-gabearen bidez: Irichi dezadala nic zugana biyurtzia, Satanasec ostu dizquitzun anima galdu oyetaco bat, bada ere; irichi dezadala nereerreguetan penitenciac-quiñ, aundi yac ezpadira ere, zure graciaren biotz-uquitu bat oyetacorembatentzat, iñautete tacoban egun auetan! ¡Jarri zaitezte nere alde Zu, Maria, ceruco erreguiña, eta pecatarien ama; ainguetu eta santuac, erri onetaco Patroiac; eta Jaungoicoagandic aldenduric dabiltzan nere anai zorigaiztocoen ainguetu guardakoac! Ipiñi itzatzute nere erregu azqueneco auec Jaungoicoaren aurrean, eta irichi dezatela berac zuen escuetatic dijoacelaco, bestela menturaz nere merecimentu ecer-ezac-gatic irichi ecingo luquetena. Amen.

